

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko maiatzaren 30ean

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko maiatzaren 23ko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Enrique Monasterio Beñaran jaunak, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
 - *DIRTEC/19/002. Oinarrizko sismikotasuna neurtzeko 12 estazio eraikitzeke ekipamenduaren obrak eta instalazio kontratua.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *DIRTEC/19/002. Oinarrizko sismikotasuna neurtzeko 12 estazio eraikitzeke ekipamenduaren obrak eta instalazio kontratua.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

2. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei EEEK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere. Kontratu txikien zerrenda ikusita, EEEKo Sail eta Atal guztiei zenbait gomendio egitea erabaki da.

3. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.

4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.

Javier Marqués González jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea

Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria